



**2021 ekitaldiko "Gipuzkoako enpresa-ehunean eta ekosistema sozioe- konomikoan enpleguaren kalitatea sustatzeko programa"ren barruan egin zenuten laguntza eskaerari buruzko ebazpenari erantsita, laguntzari buruz aspektu zehatz batzuk gogorarazi nahi dizkizugu**

**1.- Erakunde onuradunen betekizun eta konpromisoak. (I. eranskina 8. oinarria)**

8.1. Entitate onuradunek dirulaguntzak onartzeak martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak betetzea dakar, baita oinarri orokor hauetan nahiz espezifikoetan ezartzen direnak ere.

8.2. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, argitalpenetan eta zabalkunde jardueretan, hala agintzen baitu 2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jardura esparruetan 2018-2022 aldirako onartzen duenak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 149 zk. 2018ko abuztuaren 3koa).

8.3. Diruz lagundutako proiektuaren diseinu eta garapenean genero-ikuspegia gehitzea.

8.4. Diruz lagundutako proiektuan bermatzea komunikazio eta argitalpen guztietan hizkeraren erabilera ez sexista.

8.5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak diruz lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzaketari publizitate egokia ematea, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzaketa publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenei bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.

8.6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztietan parte hartu eta bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

8.7. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztietan parte hartu eta bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

8.8. Dirulaguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, dirulaguntza itzuli beharko da eta 15. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

**2.- Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea. (I. Eranskina 9. oinarria.)**

Entitate onuradunek beste batzuekin hitzartu dezakete dirulaguntzaren xedeko jarduera osoa edo zati bat beraiek egitea, baldin eta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 28. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua areagotuz jarduera horri ezer gehitzen ez diotenak.

**3.- Dirulaguntzak ordaintzea. (I. eranskina 11. oinarria.)**

11.1. Dirulaguntza, proiektua amaitutakoan ordainduko da, 13. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.



11.2. Hala eta guztiz ere, ordainketa aurreratua egin ahal izango dira, bermeen beharrik gabe, beharrezko finantzaketa gisara dirulaguntzari atxikitako jarduerak aurrera eraman ahal izateko, aintzakotzat hartuta zer helburu duen laguntzak, proiektuen sustapen eta ekimen programa, horien xedea izanik garatzea lehiakortasun jasangarriko eta lurralde edo sektorekako harremanetako eredu berriak, halako prozesuak sortzen baitira epe luzeko ikuspegi batekin eta zuzeneko inpaktu bat izango dutenak pertsonen ongizatean eta lurraldearen iraunkortasunean, zeintzuen izaera esperimentalak zailtzen baitu eskuragarritasuna finantza erakundeen barruan, prozesu horiek berekin baitakarte gauzatzealdi luzeak, zeintzuentzat beharrezkoa baita finantzaketa edukitzea hasieratik, egingarri eta bideragarri egin dezan haien garapena eta diruz lagundutako proiektuak hasi ahal izateko funtsen beharra kontuan hartuta, proiektu gehienak irabazi asmorik gabeko erakundeek enpresa txiki eta ertainetan inplementatuak baitira, zeintzuek finantza zailtasun handiak baitituzte dirulaguntzaren helburuak garatzeko, eta kontuan harturik aurreko esperientzietan proiektuek izan duten gauzatze maila. Dena den, entitate onuradunak aurretik eskatu eta zurituko du ordainketa aurreratuaren beharra. Laguntzaren aurrerakinak proiektuari ekiten zaionean eta hasiera hori behar bezala egiaztatuta dagoenean ordaindu ahal izango dira, betiere, aurrekontuetan baliabide nahikoa badago eta dirulaguntza osoaren % 60 gainditzen ez bada. **(ikusi <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/kalitatezko-enplegua>)**

11.3 Halaber, dirulaguntzaren izaerak hala justifikatzen duenean, bigarren ordainketaren aurrerakina egin ahal izango da, % 25ekoa, betiere lehen aurreratutako diru kopurua behar bezala eta dokumentuz zuritu bada, baliabide nahikoa badago eta diruz lagundutako jardueren gauzatze eritmoarekin eta aurkeztutako zuriaketekin bat baldin badator.

11.4. Salbuespen gisa, emandako dirulaguntza oso-osorik ordaindu ahal izango da proiektua edo jarduera amaitu baino lehen, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan, horretarako banku edo finantza erakundearen abala aurkeztu behar da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz nahikoa dena. Eratu beharreko abal horren zenbatekoa ordainketa aurreratuarena, diruaren legezko interesa gehituta izango da.

Abala indargabetu egingo da dirulaguntzaren xedeko proiektua amaitu dela deskargu tekniko, ekonomiko eta finantzarioz egiaztatzen denean, hain justu, 13. oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztuta.

11.5. Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, ezin izango da inolako ordainketarik egin entitate onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko edota entitate laguntzaileekiko betebeharrak betetzen ez dituen bitartean. Hori dela eta, ordaindu baino lehen, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagozkion dokumentazioa aurkeztea.

11.6 Eskabidean egiaztapen automatikoaren aurka berariaz agertu bada, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako organo administratiboek emandako ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

#### **4.- Diruz lagun daitezkeen kostuak. (I. eranskina 12. oinarria)**

12.1. Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean.

12.2. Diruz lagungarriak izango diren kostuak jarduera eremu bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

12.3. Nolanahi ere, ez dira hautagarriak izango 300 eurotik beherako kostuak.

12.4. Ez dira kostu hautagarriak izango onuradunarekin lotura duten pertsonen edo entitateen dagozkienak, salbuespen hauekin:

— Merkatuko baldintza arrunten arabera egiten denean; eta

— Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuaren baimena lortzen denean, oinarri arautzaile espezifikoetan adierazitako moduan.

12.5. Kostu hautagarriak aztertzean eta erabakitzean, departamentuak alderdi hauek hartuko ditu kontuan: proiektuaren konplexutasun maila, espero den inpaktua, entitateak arlo horretan duen gaitasun profesionala, lehia egotea, eta, merkatuko



balioa inoiz ere gainditu gabe.

12.6. Eranskin bakoitzeko (II, III, IV, V, VI, VII eta VIII) berariazko kostu eranskin bakoitzeko 5. oinarrian jasota daude

### **5.- Dirulaguntza zuritzea. (I. eranskina 13 oinarria.)**

13.1. Kasu guztietan, diruz lagundutako jarduera bukatu duela zuritu beharko du entitate onuradunak, baita diruz lagundutako jarduerak sortutako kostuak ere.

13.2. Dirulaguntzaren justifikatzeko epea **HILABETE BAT** izango da, proiektua edo jarduera gauzatzeko aldia, urteko deialdian zehaztuko dena, amaitzen denetik zenbatzen hasita.

13.3. Aurreko paragrafoan aipatu hilabeteko epearen barruan entitate onuradunak kontu zurigarria aurkeztu behar du honako dokumentuekin:

— Jarduera memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Zer jarduera burutu den eta zer emaitza izan den adierazi behar da. Proiektua gauzatzeko sortutako agiri eta txosten guztiak sartu behar dira.

— Memoria ekonomikoa, jardueren kostuak zuritzeko, honako eduki hau izango duena:

— Jardueraren kostuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua identifikatuz, baita zenbatekoa, horren jaulkipen data eta, beharko balitz, baita ordainketa data ere. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera eman denean, gertatu diren desbideratzeak adieraziko dira. (**Departamentuak emango duen eredia**)

— Fakturak edo merkataritzaren trafiko juridikoan frogatutako baliokide diren edo administrazioan eragina duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan gehitu direnak, alegia, eta, beharko balitz, ordainduaren edo dudarik gabe konprometitu denaren dokumentazioa.

— Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehetasunezko zerrenda, baita horien zenbatekoak eta jatorriak ere. (**Departamentuak emango duen eredia**) .

—Nominak eta 190 eredia, eta/edo Langileen Zerrenda Nominala-RNT barruko langile gastuak justifikatzeko. Langile autonomoen eta/edo bazkide kooperatibisten kasuan, RNT beharrean, dagokion Gizarte Segurantzaren edo antzeko entitatearen ziurta- giria.

— Orduen txostenak, entitate eskatzaile, onuradun eta kontratatuetako parte-hartzaile bakoitzak proiektuari esleitutako arduraldi eta kostuen eguneko banakapena adierazita, garatutako fase eta eginkizunak oinarri hartuta. (**Departamentuak emango duen eredia**)

— Entitate onuradunek ekipo ondasunen hornikuntzetan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan 15.000 euro edo hortik gorako kostu subentzionagarriak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.3 artikuluari jarraikiz, non eta laguntzaren ezaugarri bereziengatik merkatuan nahikoa enpresa edo profesional ez dagoenean edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin ez den.

Aurkezten diren eskaintzen arteko hautaketa dirulaguntzaren justifikazioan aurkeztu beharko da, eta hautaketa egiteko eragimena eta ekonomia izango dira aplikatutako diren irizpideak. Proposamen ekonomikorik merkeena aukeratzen ez denean, erabakia berariaz justifikatu beharko da memoria batean. (**Garatu den prozedura bete dela frogatutako duen dokumentazioa atxiki beharko da**)

—Diruz lagundutako proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak.

13.4. Kostuak egiaztatzeko, jatorrizko agirien kopia elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko da, betiere agiri horiek egiazkoak direla, osorik daudela eta gorde daitezkeela bermatzen bada.

13.6. Onuradunak 4 urtez gorde behar ditu derrigorrez dirulaguntzaren xedeko izan den jarduera egin izanaren zurigarriak,



hala nola jasotako funtsa erabili izanaren egiaztagiriak. Zurigarri horiek guztiak aurkezteko ezarrita dagoen aldia amaitzen den une berean hasiko da kontaktzen epe hori.

13.7. Oinarri honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, organo instruktoreak egoki diren egiaztapenak egingo ditu.

Egiaztapen horien bidez ondorioztatuko balitz diruz lagundutako jardueraren kostua emandako dirulaguntza baino txikiagoa izan dela, dirulaguntza doitu egingo da. Dirulaguntza zurrizko baldintza guztiak edo batzuk ez direla bete edo dirulaguntzaren xedea ez dela zati batean edo osoan bete ondorioztatzen bada, onuradunari jakinaraziko zaio hori, egindako egiaztapenen emaitzekin batera. Halaber, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdutzat jotzeko prozedurari ekingo zaio edo, kasua balitz, 15. oinarrian aurreikusten den prozedurari, emandako dirulaguntza osoa edo zati bat itzularazteko.

#### **6.- Ebazpena aldatzea. (I. eranskina 14. oinarria.)**

14.1. Diruz lagundutako jarduera burutzeko ezarri den epea amaitu baino lehenago, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea eska dezake onuradunak, ezarritako epea luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko, diruz lagundutako aurrekontu sailak aldatzeko edota jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek onar daitezke beren arrazoiak ustekabeko zirkunstantzietan oinarritzen denean edota jarduera burutzeko premiazkotzat jotzen direnean, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta beste pertsona batzuen eskubideak kaltetzen ez badira.

#### **7.- Proiektuak gauzatzeko data.**

Erakunde onuradunek **2022ko EKAINAREN 28rako** amaitu behar dituzte diruz lagundutako proiektuak.

#### **INFORMAZIO GEHIAGO**

- Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozioekonomikoan enpleguaren kalitatea sustatzeko programaren dirulaguntzen 2021. urteko deialdia. (2021eko urriaren 7eko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. GAO 177 zk. 2021eko urriaren 15ean).
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko, 3/2007 FORU ARAUA. (GAO. 2007ko apirilak 12, 71 zk.)
- Apirilaren 29ko 24/2008 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena. . (GAO. 2008ko maiatzak 6, 85 zk.)